


## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Trynow aplikazioak funtziona dezan funtsezko baliabide batzuk beharko ditugu nahitaez. Baliabide horiek materialak, finantzarioak zein intelektualak izango dira eta horietaz baliatuko gara aplikazioa martxan jartzeko. Hala ere, baliabide materialak urriagoak izango dira, eskaintzen dugun proiektua aplikazio bat denez, baliabide gehienek esparru teknologikoarekin izango dute zerikusia.

Finantza baliabideei dagokienez, taldekide bakoitzak diru kantitate bat jarriko du proiektuan hasierako inbertsio bat gauzatzeko, 1000€koa konkretuki. Horregatik, hasieran ez dugu uste mailegu bat eskatzeko beharra izango dugunik, gure hasierako inbertsioarekin nahikoa izango baita.

Gure aplikazioa mugimenduan jar dadin ezinbestekoa dugu espazio bat bilatzea, bertan guztiok batera zenbait antolaketa eta plangintza burutzeko. Langileak egoitzan elkartu eta produktibitatea ezinbestekoa litzateke bertan lan egiteko. Trynowren langileon kasuan, egoitza Madrilen kokatzea erabaki dugu, gure aplikazioa Espainia guztira zabalduko nahi baitugu eta herrialdearen hiriburutik zenbait gestio egiteko orduan erraztasun gehiago izango ditugu. Egoitzak ez du oso handia izan behar, bulego batekin nahikoa izango dela iruditzen zaigu.

Aipatu dugun moduan, baliabide fisikoak oso eskasak izango dira, gure proiektua ez baita produktu baten salmentan zentratzen. Horregatik, taldekide bakoitzak ordenagailu bana eta mugikor bana besterik ez genuke beharko, bi tresna teknologiko horiekin kudeaketa guztiak egitea posible baitugu. Agian, baliagarria izango litzateke ordenagailu eta mugikor berriak erostea, jadanik ditugunak apur bat zaharrak direlako eta gure helburua geure lan tresnak ahalik eta aktualizatuenak egotea da.



Zorionez, ez gara gure aplikazioaren eskubideak eskuratzeaz kezkatu beharko, Aneren aitak zuzenbidea ikasi baitzuen eta abokatua baita, hortaz Aneren kontaktuarekin gauzatu dugu prozesu hori, gauzak errazagoak izan daitezten.

Baliabide intelektualei erreparatuko diegu jarraian.

Anek udara guztietan herriko udalekuetan izena ematen zuen, ordenagailuak dituzten programak sortzen jakiteko, eta mundu horren guztiaren oinarri oso ona finkatuta duenez, nahiko baliabide izango ditu aplikazioa aurrera eramateko. Bere baliabide teknologikoak oso garatuta daude eta erraztasun handia du horrelako ekintzak gauzatzeko. Hortaz, ez dugu arazorik izango webgunea edota aplikazioa aurrera eramateko. Anek arazorik edukiko balu, Xabiri galdetu beharko lioke, bera ere teknologia alorrean oso murgilduta baitago.

Komunikatzea ezinbestekoa da, edozein egitasmo aurrera eraman ahal izateko. Harreman hurbila edota urrunagoa edukitzeko baliabideak izatea funtsezkoa izango da, eta horretarako, hitz egiteko garaian zailtasunik ez duen pertsona baten abileziak beharko genituzke. Aipatu berri ditudan ezaugarri horiek gure taldekide batek jadanik baditu, Mirenek hain zuzen ere, eta horregatik, harremanetarako pertsona aproposa izango dela uste dugu. Dударik gabe, bezeroekin harreman hurbilena izango duena izango da, oso ondo hitz egiten baitu pertsonekin, eta uste dugu oso erabilgarria izango zaigula bezeroak konbentzitzeko eta haien galdera guztiei erantzunak argi eta garbi plazaratzeko.

Amaitzeko, gure aplikazioa ez litzateke ezer izango erakundeen eta komunikaziorik gabe. Jarduera horietarako hizkuntza formalago bat beharrezkoa izaten ohi da, eta horrelako egoerak kudeatzen pertsona bikaina Nora da. Era berean, Nora izango da sare sozialak eramango dituen, eguneratuta eduki behar ditugulako, eta berari txikitatik eman zaiolako ondo teknologia berrien mundua eta Internet bidez gauzatzen den komunikazioa. Uste dugu baliabide mota hori gehien kontrolatzen duen pertsona izango dela. Ondorioz, bera izango da arduraduna.



Behin funtsezko baliabide guztiak aipatuta, ezinbestekoa izango da denak behar bezala betetzea denok elkarlanean jarduteko eta Trynow arrakastatsua izateko. Ekin diezaiogun lanari!

